

Ipuin kontaketa saioa izango da gaur Zarauzko Sanz Enean

ZARAUZ. Zarauzko Sanz Eneako haur liburutegiak ipuin kontaketak antolatzen ditu gaztetxoek aspertzeko astirik izan ez dezaten eta irakurketarako joera bultza-tzeko asmoz. Sanz Eneako liburutegiko langileak gaur hasiko dira 2008ko lehen ipuin kontaketa eskaintzen eta aurrerantzean gehiago izango direla jakinarazi dute. Hilero haur ugari elkartzen dira saioetan.

Gaurko hitzorduan, Maite Francoren ipuinak entzuteko aukera izango dute hurrek. Ipuin kontalariak bere istorioak azalduko dizkie 4 eta 8 urte bitarteko gaztetxoei. Francoren saioa 17.00etan hasiko da, gerturatu nahi duen ororentzat. Gurasoek ere izango dute aukera hurrei saiora laguntzeko eta, nahi izanez gero, ipuin kontaketa entzuteko. Datorren ipuin kontaketa otsailaren azken asteazkenean izango da. >a.L.